



SINCE 1994

JATORRI DEITURA

XXV

BIZKAIKO TXAKOLINA



BIZKAIKO TXAKOLINA 2019

KONTSEILU ARAUTZAILEA

Lehendakaria:

José Luis Gómez Querejeta, jauna

Lehendakariordea:

Unai Sulibarria Santibañez, jauna

Batzordekideak:

Aritza Antolínez Salvado, jauna

Miren Sorkunde Bikandi Lasa, andrea

Bertol Izagirre Garizurieta, jauna

Arkaitz Larrazabal Durana, jauna

Pilar Llamosas Orcasitas, andrea

Garikoitz Ríos Urbaneta, jauna

KONTSEILU ARAUTZAILEAREN EKINTZAK

JATORRI DEITURAREN XXV. URTEURRENA

EHUKO UDAKO IKASTAROA

Bizkaiko Txakolina Jatorri Deituraren XXV. urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi egin ziren 2019an, betiere gure marka eta produktua sustatzearekin lotuta.

Eusko Jaurlaritzari Kontseilu Arautzaileak proposatuta, EHUK bere Udako Ikastaroen programan sartu zuen gure jatorri-deiturari buruzko berariazko bat. HAZI arduratu zen gaiak eta hizlariak hautatzen. Ikastaroa ekainaren 27an eta 28an egin zen, Mendibileko gure egoitzan eta Berroja upategian. “Bizkaiko Txakolina JD aren atzera begirakoa eta oraina” izan zen bere titulu orokorra.

Hizlari lanetan Cristina Alcalá, Maria Olarte eta María José Huertas aritu ziren.

Cristina Alcalá, sektorean espezializatutako kazetaria da. Mi Vino aldizkariko zuzendaria izandakoa, eta Ribeiro Kontseilu Arautzaileko idazkaria, baita ere. Jatorri Deituren problematika orokorrari buruz hitz egin zuen.

María Olarte, Olarte Desarrollo de Personas erakundeko zuzendaria, coaching-ean, prestakuntzan eta gatazken konponketan espezializatua, Elkartegintzari eta Lankidetzari buruzko ponentzia zuzendu zuen.

Eta Maria Jose Huertas La Terraza del Casino jatetxeko (Madril) sommelierak, txakolinari eta gastronomiari buruz hitz egin zuen.

Master of Wine den Andreas Kubachek dastatze bat zuzendu zuen Berroja upategian, gure JDko txakolin katalogo zabal bat aurkeztuz.

Bierzo Deituren eta Marco de Jerez Kontseilu Arautzaileetako ordezkariak ere parte hartu zuten ikastaroan, eta beraien esperientziak aurkeztu zituzten. Lan bera egin zituzten Corpinateko kideek ere. Corpinat Penedesen ardo apardunak egiten dituzten upategien elkarte bat da, bere garaian Cava jatorri-deituratik banandu zirenak.

WEB APP BERRIA: TXAKOLIMAP

2019ko udaz geroztik, eskuragarri dago www.txakolimap.com webgunean eta Bizkaiko Txakolinaren webgune ofizialean, <http://www.bizkaikotxakolina.org/> txakolinaren mundu tradizionalari egindako ekarpen teknologiko gisa garatua den "Txakoli Map" App webgunea. Sakelako telefonoan jartzen den tresna honek erabiltzailearengandik gertuen dauden Bizkaiko Txakolina eskaintzen duten lokalak aurkitzeko aukera ematen du. Horrela bezeroak Bizkaiko Txakolina errez aurkitu ahal izango du, baita pintxo egoki bat ere, hura uztartzeko. Aplikazioak erabiltzailearengandik gertuen dauden lokalen geolokalizazioa errazten du, baina baita establezimendu horiei eta Bizkaiko Txakolinaren upategiei buruzko informazio gehigarria ere eskaintzen du. Abian jarri zenean, aplikazioak Bilboko ostalaritza-lokalei buruzko informazioa eskaintzen zuen, baina, pixkanaka, bere jardun-eremua zabaltzen ari da Bizkaiko lurralde osora, establezimendu berriak atxiki ahala.

BESTE SUSTAPEN-JARDUERA BATZUK

PINTXOAK ETA BIZKAIKO TXAKOLINA UZTARTZEA IRUÑEAN

Azaroaren 7tik 17ra bitartean egin zen Bizkaiko Txakolinarekin egindako Pintxoen Uztartze Txapelketaren bigarren edizioa Iruñean. Lehiaketaren lehen edizioak izan zuen arrakastaren ondorioz, parte hartu duten ostalaritza-establezimenduen kopuruak gora egin du. Oraingoan, Iruñeko eta eskualdeko 28 tabernek eta jatetxek eskaini zioten bezeroei pintxo bat, bereziki horretarako sortua, Bizkaiko Txakolinaren kopa batekin uztartuta. JDko hamabi upategik hartu zuten parte.

Lehen aldiz, Bizkaiko Txakolinaren Aretoa ere egin zen Madrilan, gure produktua ostalaritzaren eta ardoaren sektoreko profesionaleri aurkezteko.

Jarduera berri horretaz gain, Jatorri Deiturak hainbat ekitaldi gastronomiko, jaiegun eta sozialetan parte hartu eta lagundu du, hala nola, Begoñako Ama Birjinaren eguna dela-eta Bilbon ospatzen den Txikiteroen Egunean, Aste Nagusiko bakailao lehiaketetan, San Tomas egunean, Bilbon, eta Muskizko eta Balmasedako azoketan.

Aurten ere, Bizkaiko Txakolinak ez du ahaztu bere alderdi solidarioa Rotary Clubek egiten duen polioaren aurkako kanpaina parte hartuz.

HITZARMENAK ATHLETIC CLUB ETA LABORAL KUTXAREKIN

Bizkaiko Txakolinak aurten ere berritu du Athleticekin duen lankidetzaren hitzarmena, eta, horren arabera, gure JDko upategi bat VIP eraztunean dago, Athleticen lehen taldeak San Mamesen jokatzen duen partida bakoitzean. Akordioaren arabera, beste ekitaldi batzuk egin daitezke VIP eraztunean, Athletic Clubeko bazkideentzat. Horrela, Enoteka deiturikoa ospatu da aurten, eta

bertan aurkeztu da Bizkaiko Txakolinaren gama gastronomikoena: txakolin ondua, barrikan irakindako hondar eta hartzidurekin.

Bestalde, Laboral Kutxarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, Bizkaiko Txakolina/Laboral Kutxa Foroaren laugarren edizioa egin zen Azkuna Zentroan. Bertan izan ziren Lluís Tolosa soziologo eta idazlea, enoturismoari buruzko ponentzia aurkeztu zuena, eta Ricardo Arambarri Vintaeko zuzendari nagusia, markaren sorrerari buruz aritu zena.

KALITATE BIKAINEN ARDOA

Kalifikazio-dastaketen emaitzek gure upategiek egiten dituzten txakolinen kalitate bikaina berresten digute, izaera atlantikoa berreskuratuz, bi urte beroagoen ondoren transmititzen duten freskotasun, konplexutasun eta dotoreziagatik.

Iaz data berera arte 853.113 litro kalifikatu ziren bitartean, aurtan 1.108.453 litro kalifikatu dira. Hori kalitate bikainaren eta eskari gero eta handiagoaren adierazle argia da, bai gure ohiko bezeroena, bai iristen ari garen merkatu berriena.

EKOIZPENA BERRESKURATZEKO URTEA

2019ko uzta ekoiztutako Txakolinaren bolumena 1.524.354 litrokoa izan da; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 25,51 hazi da. Berreskuratzea oso positiboa bada ere, 2018ko uzta txarraren ondoren, aurtengo produkzioa 2017an Jatorri Deituraren historiako errekorra izan zenaren azpitik egon da.

Mahasti berriak (21 hektarea 2012 eta 2015 artean landatu dira) ekoizten hasi izanak eragin positiboa izan du ekoizpenaren bolumen osoan, baina mahats-ekoizpenaren hazkundera ez da nahikoa izan sektorearen beharretarako eta 2018ko uzta laburraren ondoren markatutako itxaropenetarako.

2019 bi faktore nagusik markatu dute. Negua oso epel amaitu eta udaberria hotz samarra eta prezipitazio gutxikoa izatearen ondorioz, oso goiz eta ohiko daten aurretik loratu zen mahastia. Baina loratze prozesua ohikoa baina luzeagoa izan zen, eta horrek ondorio negatiboak izan zituen gatzagian.

Klimari dagokionez uda nahiko positiboa izan ondoren, ohikoa baino tenperatura altuagoekin eta prezipitazio txikiagoekin, irailean erregistratutako tenperatura altuek mahatsaren heldutasuna aurreratu zuen eta, ondorioz, mahats-bilketa aurreratu zen, hil horren 20an hasi baitziren uzta lanak.


Lehortek eta gatzatu txarrak eragindako ale-galerak azken emaitzak hasierako itxaropenei ez erantzutea eragin arren, hektareako ekoizpen-errendimenduak aurreko urtekoak baino handiagoak izan ziren, eta mahatsa/txakolina eraldatzeko errendimenduak antzekoak izan ziren.

1 KOADROA. EKOIZPENAREN EBOLUZIOA (kilo eta litrotan)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Mahatsa	1.515.782	2.323.190	2.681.329	2.714.984	2.379.989	1.840.236	2.278.159
Txakolina	999.428	1.569.634	1.784.934	1.825.195	1.593.276	1.228.858	1.524.354

Upategiek 3.850 litro ardo berantiar egin dutela adierazi dute eta Bizkaiko Apardun 1.000 litro

Kopuru honetan ez da Foru Aldundiko Upategi Esperimentala sartzen




LANDUTAKO HEKTAREA KOPURUAK IGOERA TXIKIA IZAN DU

Mahatsondoaren laborantzara bideratutako hektarea kopuruak goranzko joerari eutsi dio, Jatorri Deituraren hazkunde kontrolatuko planari jarraituz beti, eta haren titularren kopuruak berriz ere behera egin du pixka bat. Gaur egun, 199 mahastizain daude izena emanda, 428 hektarea landatuta.

2 KOADROA. UPATEGI KOPURUA EKOIZPEN KOPURUAREN ARABERA (litroetan)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Hektareak	373	383	392	396	403	415	428
Titularrak	223	215	212	218	210	203	199




UPATEGI KOPURUAK EGONKOR JARRAITZEN DU

50.000 litro baino gehiago egiten dituzten upategien kopuruak gora egin du berriro, eta 2018a baino lehenagoko parametroak berreskuratu ditu, uztaren bolumenaren jaitsierak ekoizpen-indize hori duten upategien beherakada eragin baitzuen iaz. Erregistratutako upategien kopuruak egonkor jarraitzen du.

3 KOADROA. UPATEGI KOPURUA EKOIZPEN KOPURUAREN ARABERA (litroetan)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
>50.000	11	7	11	13	13	11	9	12
50.000-20.000	8	9	8	8	6	8	9	6
20.000-10.000	10	4	7	6	7	6	5	6
10.000-5.000	3	7	5	8	6	6	3	4
<5.000	17	17	13	8	9	8	11	9 *
Dekarazio gabe	2	4	2	2	4	-	3	4
Denetara	50	49	46	45	45	39	40	41*

* Deiturara sartzeko eskaera egin duten eta Kontrol Erakundearen ziurtapen agiria itxaroten dauden bi upategi sartzen dira koadroan



TXAKOLIN ZURIA DA BIZKAIAN GEHIENGOA

Txakolin zuria ekoizpen nagusia da oraindik Jatorri Izendapenean, baina gorria eta beltza ekoizten diren ehunekoak nabarmen igotzen dira.

Txakolin beltza, 190 hektolitro baino gehixeago eginda, jatorri-deituraren ekoizpen osoaren %1,24a da, eta arrosa, berriz, % 0,58, ia 90 hektolitro eginda. Txakolin zuria ekoizpen osoaren %97,72a da, eta jatorri-deituraren erreferentzia eztabaiaezina izaten jarraitzen du.

Apardunaren eta Uzta Berantiarreko ardoen ekoizpenean ere igoera txikiak izan dira.

4 KOADROA. BIZKAIKO TXAKOLINAREN EKOIZPEN MOTAK (hektolitroetan)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
ZURIA	15.489,03	17.678	18.013	15.786	12.140,85	14.963,38
Gutzizkoaren%	98,22	98,68	98,66	98,94	98,41	97,72
GORRIA	119,07	40,35	47,08	35,07	34,75	89,48
Gutzizkoaren %	0,76	0,23	0,26	0,22	0,28	0,58
BELTZA	88,24	131,04	163,76	112,1	112,98	190,68
Gutzizkoaren %	0,56	0,73	0,90	0,70	0,92	1,24
APARDUNA	10	15	15	15	10	24
Gutzizkoaren %	0,06	0,08	0,08	0,09	0,08	0,16
U.BERANTIARRA	63,30	49,7	18,25	7,30	38,5	45,5
Gutzizkoaren %	0,4	0,28	0,10	0,05	0,31	0,30

MERKATURATUTAKO TXAKOLINAREN MARKA BERRIA

laz merkaturatutako txakolin kopuruan beste errekor bat erregistratu zen, 16.592,79 hektolitro guztira. Kanpaina honetan zifrak ohikoagoak dira, 2014 eta 2017 artean erregistratutako en antzekoak.

Aurreko kanpainako errekorrekiko jaitziera antzekoa izan da hiru elaborazioetan (zuria, beltza eta gorria), bai barne-merkatuan, bai esportazioetan.

5 KUADROA. MERKATURATUAREN EBOLUZIOA

	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
ZURIA	12.931,82	14.202,81	14.258,89	15.183,78	15.800,25	14.199,99
GORRIA	63,29	44,51	106,53	14,74	49,65	46,05
BELTZA	47,93	32,48	48,71	52,71	68,18	54,23
APARDUNA	6,42	1,58	10,31	10,08		
BARNE GUZTIRA	13.062,24	14.281,38	14.424,34	15.261,31	15.918,08	14.139,44
KANPO GUZTIRA	409,71	498,07	429,73	447,20	674,71	524,01
GUZTIRA	13.471,95	14.779,45	14.854,07	15.708,51	16.592,79	14.663,45

* Kanpainak abuztuaren 1etik hurrengo urteko uztailaren 31ra bitarteko datuak biltzen ditu. Hau da, azken kanpainan 2018ko abuztuaren 1etik 2019ko uztailaren 31ra arteko merkaturatze-datuak hartzen dira kontuan.

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK, JAPONIA, HOLANDA ETA ERRESUMA BATUA BIZKAIKO TXAKOLINAREN KANPO MERKATU NAGUSIAK DIRA

Kanpo-merkatuari dagokionez, Holandan salmenten hazkunde esanguratsua ikusten da, eta horrek konpentsatzen du Japoniako merkaturatze gertatu den beherakada; hala ere, merkatu hori erreferentziarako helmuga da esportazioetan, Erresuma Batuen aurretik. Herrialde horren gainean kontuan eduki behar dugu Brexiten eraginez etorkizunean gertatuko denaren ziurgabetasuna. AEBak ere Bizkaiko Txakolinaren kanpo merkatu nagusitzat berretsi dira beste urte batez.

6 KOADROA. HERRIALDE INPORTATZAILEAK. (Hektolitrotan)

PAÍS	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-2018	2018-2019
AEB	242,11	318,29	255,56	197,17	293,94	223,74
JAPONIA	27,90	33,45	22,73	26,01	141,28	52,20
HOLANDA	9,35	24,35	13,14	36,63	17,34	62,37
E.BATUA	20,41	45,69	45,63	71,88	53,42	37,42

TXAKOLIN SARITU ETA GORAIPTUAK

Bizkaiko Txakolina Jatorri Deitura atxikitako ardogleek ekoiztako ardoaren benetakotasuna zaintzen du, eta bermatzen du bere izenarekin etiketatutako txakolinak kalitate-betekizun zorrotzak betetzen dituela elaborazio-prozesu guztietan, mahatsondoaren landaketatik hasita, betiere itsasoaren mailatik 400 metrotik beherako lurretan, botilatzeraino. Bizkaiko Txakolinak kalitatezko ardo gisa lortu duen aintzatespena da.

Bizkaiko Txakolina JDko 30 txakolin-markek 90 puntu edo gehiago lortu dituzte Espainiako ardoen Peñín gidaren azken edizioan. Orozkoko Bizkaibarne upategiak egindako 2017ko Marko Late Harvest da kalifikazio onena lortu duen elaborazioa, 94 punturekin.

Hiru upategitako bost marka 93 puntura iritsi dira. Itsasmendi upategiko hiru: Artizar 2014 (Borgoña botilan), Artizar 2014 (Rhin botilan) eta Artizar Magnum 2013. Gorka Izagirre upategiko 42 by Eneko Atxa 2015, eta Bizkaibarne upategiko Marko Gure Arbasoak 2017.

92 punturekin daude Itsasmendi upategiko, 2015 eta 2016ko Itsasmendi 7 Magnum, 2017ko 7 Partzelarioa eta 2016ko Urezti. Gorrondona upategiarena, Doniene XX, 2016. Gorka Izagirrerren Ama 2015, Gorka Izagirre 2016 eta Geroa 2016. Bizkaibarneko , Marko 2018. Eta Virgen de Loreako, Lainoa 2017.

91 puntu lortu dituzte Doniene 2018 eta Gorrondona 2018, Doniene Gorrondona upategiokoe; Gorka Izagirrerren Arima 2017, Haziberriak upategiko NNekezari 2017, izen bereko upategiko Magalarte Lezama 2017, Gorka Izagirrerren Vino Atlántico 2018 eta Virgen de Lorea upategiko Señorío de Otxaran 2018.

Hamabi markek 90 puntu lortu dituzte. Berroja 2017, izen bereko upategikoa; Mendraka 2018, Elizalderena; Artxanda 2018, Jon Ander Rekalderena; TX16 2016, Tallerirena; Torre de Loizaga, Galdamesko upategiarena; Itsasmendi 7, Itsasmendirena 2017; Ondarea 2017 FB, Gorrondonarena; Gorka Izagirre 2018 eta Garena 2018, Gorka Izagirrerena; Magalarte Zamudio FB 2016 eta 2017 upategiarena.

Jatorri-deituraren 25 urteko historian zehar, txakolin ugarik jaso dituzte aintzatespenak eta sariak hainbat lehiaketatan, hala bertako-mailan nola nazioartean.

Hurrengo koadroan, 6 upategitako 17 markak ageri dira, 2019an sariak eta bereizketak lortu dituztenak.

7 KOADROA. 2019an SARITUTAKO TXAKOLINAK

MARKA	UPATEGIA	SARIA
TXABARRI EXTRA 2018	Txabarri Upategia	Concurso Internacional Bacchus Zilarrezko Bacchus
TXABARRI TINTO, 2018	Txabarri Upategia	Concurso Internacional Bacchus Zilarrezko Bacchus
PARCELARIO 7.6 2017	Itsasmendi Upategia	Concurso Internacional Bacchus Zilarrezko Bacchus
42 BY ENEKO ATXA 2015	Gorka Izagirre Upategia	Concourse Mondial Bruxelles Urrezko Domina Handia
GORKA IZAGIRRE 2018	Gorka Izagirre Upategia	Concourse Mondial Bruxelles Urrezko Domina
OLETXE 2017	Butroi Upategia	Concourse Mondial Bruxelles Zilarrezko Domina
EUP! 2018	Magalarte Lezama Upategia	Concourse Mondial Bruxelles Zilarrezko Domina
G22 2016	Gorka Izagirre Upategia	International Wine Challenge Vino recomendado
42 BY ENEKO ATXA 2015	Gorka Izagirre Upategia	Concurso Internacional Bacchus Zilarrezko Domina
AMA 2015	Gorka Izagirre Upategia	International Wine Challenge Zilarrezko Domina
GORKA IZAGIRRE 2018	Gorka Izagirre Upategia	International Wine Challenge Medalla de Bronce
ARIMA 2017	Gorka Izagirre Upategia	International Wine Challenge Brontzezko Domina
EUP! BARRIKAN 2018	Magalarte Lezama Upategia	International Wine Awards Urrezko Domina
EUP! 2018	Magalarte Lezama Upategia	International Wine Awards Urrezko Domina
ARETXABALETA 2018	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Urrezko Domina
MAGALARTE ZAMUDIO FB, 2018	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Urrezko Domina
MAGALARTE LEZAMA 2018	Magalarte Lezama Upategia	International Wine Awards Zilarrezko Domina
SAGASTIBELTZA 2018	Magalarte Lezama Upategia	International Wine Awards Zilarrezko Domina
ZABALONDO 2018	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Zilarrezko Domina